



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica

PRENTSA-OHARRA

"Geologia olerkari, miope eta despistatuentzat" jardunaldia

Harea-pikorretik mendira: geologiaren begirada global bat

"Geologia olerkari, miope eta despistatuentzat" jardunaldia martxoaren 4tik 6ra egingo da EHUko Bizkaia Aretoa (Bilbo). Bertan, geologiaren behaketa integrala eskainiko da, eskala mikroskopikotik makroeskalara.

Ekimena Euskal Herriko Unibertsitateko Hidro-Ingurumeneko Prozesuak (HGI) ikertaldeak eta EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatu dute, eta Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzaren, Euskal Kostaldeko Geoparkearen, BC3ren, Energiaren Euskal Erakundearen eta Pozalaguako Haitzuloaren laguntza du.

Bilbon, 2026ko otsailaren 25ean. Geologia ez da paisaietan eta mendietan bakarrik agertzen, eskala txikian ere azaltzen da, harea-pikorretan edo lurzoruko buztinetan. Eskala handian ikusi ohi ditugu prozesu geologikoak, baina eskala mikroskopikoan ere erregistratzen dira. Azterketa maila hau egingo ez bagenu, interpretazio asko osatu gabeak edo okerrak izango lirateke. Eskala desberdinetako ikuspegien konbinazioak Lurraren bilakaera hobeto ulertzeko, baliabide naturalak aurkitzeko edo material geologikoen portaera iragartzeko aukera ematen du.

Ikerketa hauek gizarteratzeko asmoarekin, **martxoaren 4an, 5ean eta 6an "Geologia olerkari, miope eta despistatuentzat. Mikro ↔ Makro"** jardunaldien zazpigarren edizioa egingo da. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Zientzia eta Teknologia Fakultateko [Hidro-Ingurumeneko Prozesuak \(HGI\)](#) ikertalde finkatuak eta [EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) antolatutako ekimen honek [Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza](#), [Euskal Kostaldeko Geoparkea](#), [Energiaren Euskal Erakundea \(EEE\)](#), [Basque Centre for Climate Change \(BC3\)](#) eta [Pozalaguako Kobazuloa](#) (Karrantza) ditu laguntzaile.

Martxoaren 4ko eta 5eko saioak **Bilboko Bizkaia Aretoa-EHU eraikineko Baroja aretoa egingo dira**, 16:15etik aurrera, eta aurrez aurre nahiz *streaming* bidez jarraitu ahal izango dira, Euskal Herriko Unibertsitateko [EHUtb](#) kanalaren bidez. Ekitaldiari amaiera emateko, martxoaren 6an, ostirala, **Basque Centre for Climate Change (BC3) zentroko Izotzalab instalaziora eta EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Geologia saileko laborategietara** bisita egingo da.

Martxoak 4, asteazkena | Mikrofosilak, izotza eta lurpeko ura



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica

Lehenengo egunean mikrofosil, izotz eta uraren azterketa mikroskopikoak ardatz izango dituzten hiru hitzaldi eta tailer bat egingo dira. Lehenengoan, **Alejandro Cearreta** geologoak (EHU) biosferako artxibo geologiko osatuenetakotzat jotzen diren mikrofosilen garrantziari eta azterketa metodologiari buruz hitz egingo du. Jarraian, **Sérgio H. Faria** glaziologoak (BC3) Groenlandiatik Antartikarainoko ibilbidea egingo du, izotzaren portaerak kliman duen eragina eskala mikroskopiko batetik azaltzeko.

Hitzaldien blokea ixteko, **Iñaki Antigüedad** hidrogeologoak (EHU) mendigune arroksuen barruan urak duen mugimenduari eta biltegitatzeari buruz egingo du berba. Lehenengo eguna publikoari irekita egongo den tailer batekin amaituko da, arratsaldean zehar ikasitakoak praktikan jartzeko.

Martxoak 5, osteguna | Mineralak eta sedimentuak

Bigarren egunak mineralai eta sedimentuei begiratuko die. Osteguneko jardunaldia irekitzeko, **Andrey Ilin** geologoak (Tübingeneko Unibertsitatea) Lurak historian zehar eginiko bidea erakutsiko du mineralen azterketaren bidez. **Laura Damas** eta **Arantza Aranburu** geologoak (EHU), berriz, arroak laborategian nola aztertzen diren azalduko dute. Arratsaldeko azken hitzaldian, geologiaren ikuspegitik egindako zeramika arkeologikoen kasu-azterketa bat aurkeztuko du **Ainhoa Alonso** geologoak (EHU). Lehenengoan bezala, bigarren egunean ere saio praktiko bat egingo da, ponentzietan aurkeztutako kontzeptuak finkatzeko.

Martxoak 6, ostirala | Geologia laborategian

Jardunaldiei amaiera emateko, hirugarren egunean Leioako Bizkaiko Campuseko Zientzia eta Teknologia Fakultateko hainbat laborategitara bisita-tailerra egingo da. Zehazki, **BC3ko IzotzaLab tenperatura baxuko instalazioa eta EHUko Geologia Saileko bi laborategi bisitatuko dira.**

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu edizio honetako [egitarau](#) osoa.

Izen-ematea eta sarrera

Antolatutako jardueretara sarrera librea eta doakoa izango da, lekua bete arte. Bizkaia Aretoa-EHUko hitzaldietan aldeztu aurretik izena ematea gomendatzen da, tokia izango duzula segurtatzeko. Ostiraleko bisita-tailerraren kasuan, derrigorrezkoa da izena ematea, parte-hartzaile kopuru mugatua dagoelako.

Izen-ematea ekitaldiaren [webgunean](#) edo [inprimaki honetan](#) egin daiteke. Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan erakundearekin, helbide elektroniko honen bidez: j.geologiamiopes@gmail.com.

--

GEOLOGIA OLERKARI, MIOPE ETA DESPISTATUENTZAT | Mikro ↔ Makro

Datak: martxoak 4, 5 eta 6



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica

Ordutegia: Hitzaldi geologikoak. 16:15etik 19:30era. Izotzalab (BC3) eta Geologiako laborategietara bisita-tailerra: 16:00etatik 19:15era.

Lekua:

Hitzaldiak: martxoaren 4an eta 5ean [Bizkaia Aretoa-EHU](#) eraikineko Baroja aretoan, Abandoibarra, 3. Bilbo, Bizkaia.

Bisita-tailerra laborategietara: martxoaren 6an. Topagunea: EHUko Bizkaiko Campuseko [Mikel Laboa Plazan](#), 16:00etan. Sarriena auzoa. 48940 Leioa, Bizkaia.



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica

NOTA DE PRENSA

Jornadas “Geología para poetas, miopes y despistados”

Del grano de arena a la montaña: una mirada global de la geología

Las jornadas “Geología para poetas, miopes y despistados”, que se celebrarán del 4 al 6 de marzo en el Bizkaia Aretoa-EHU de Bilbao, ofrecerán una observación integral de la geología desde su escala microscópica a la macroescala

Esta iniciativa está organizada por el grupo de investigación Procesos Hidro-Ambientales (HGI) de la Universidad del País Vasco y la Cátedra de Cultura Científica de la EHU y cuenta con la colaboración del Vicerrectorado del Campus de Bizkaia, el Geoparque de la Costa Vasca, el BC3, el Ente Vasco de Energía (EVE) y la Cueva de Pozalagua

Bilbao, 25 de febrero de 2026. La geología no sólo se manifiesta en paisajes y montañas, también está presente a pequeña escala, en granos de arena o en las arcillas del suelo. Los procesos geológicos, que comúnmente vemos a gran escala, también se registran a escala microscópica. Sin ese nivel de análisis, numerosas interpretaciones resultarían incompletas o, incluso, erróneas. La combinación de enfoques a distintas escalas permite comprender mejor la evolución de la Tierra, localizar recursos naturales o predecir el comportamiento de materiales geológicos.

Con el objetivo de acercar estos estudios a la sociedad, los días **4, 5 y 6 de marzo** se celebrará la séptima edición de las jornadas divulgativas **“Geología para poetas, miopes y despistados. Micro ↔ Macro”**. Organizadas por el grupo de investigación consolidado [Procesos Hidro-Ambientales \(HGI\)](#) de la Facultad de Ciencia y Tecnología de la Universidad del País Vasco (EHU) y la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#), estas jornadas cuentan con la colaboración del [Vicerrectorado del Campus de Bizkaia](#), el [Geoparque de la Costa Vasca / Geoparkea](#), [Ente Vasco de la Energía](#) (EVE), el Basque Centre for Climate Change (BC3) y la [Cueva de Pozalagua](#) (Karrantza).

Las sesiones del 4 y 5 de marzo tendrán lugar la **Sala Baroja** del edificio **Bizkaia Aretoa**-EHU de Bilbao a partir de las 16:15 y podrán seguirse tanto de manera presencial como vía *streaming* a través del canal [EHUtb](#) de la Universidad del País Vasco. Como cierre, el viernes 6 de marzo, el evento culminará con una visita-taller a los **laboratorios Izotzalab** del Basque Centre for Climate Change (BC3) y a los del **departamento de Geología** de la Facultad de Ciencia y Tecnología de la EHU.



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica

Miércoles, 4 de marzo | Microfósiles, hielo y agua subterránea

La primera jornada incluirá tres ponencias y un taller participativo centrados en el análisis microscópico de microfósiles, hielo y agua. Durante la primera, el geólogo **Alejandro Cearreta** (EHU) abordará la importancia y la metodología de estudio de los microfósiles, considerados unos de los archivos geológicos más completos de la biosfera. A continuación, el glaciólogo **Sérgio H. Faria** (BC3) ofrecerá un recorrido desde Groenlandia hasta la Antártida para explicar cuál es el comportamiento del hielo y su impacto climático desde una escala microscópica.

Después, el hidrogeólogo **Iñaki Antigüedad** (EHU) cerrará el bloque de conferencias con una intervención sobre el movimiento y almacenamiento del agua subterránea en el interior de los macizos rocosos. Para terminar la jornada, tendrá lugar un taller participativo abierto al público para poner en práctica algunos de los conocimientos aprendidos durante la tarde.

Jueves, 5 de marzo | Minerales y sedimentos

El segundo día se pondrá el foco en el estudio de los minerales y los sedimentos. En primer lugar, el geólogo **Andrey Ilin** (Universidad de Tübingen) realizará un viaje por la historia de la tierra a través del estudio de los minerales. Por su parte, las geólogas **Laura Damas** y **Arantza Aranburu** (EHU) explicarán cómo es el proceso de análisis de las rocas desde el laboratorio. La última ponencia de la tarde correrá a cargo de la geóloga **Ainhoa Alonso** (EHU), quien presentará un caso de estudio de cerámicas arqueológicas desde la perspectiva geológica. Al igual que el primer día, la segunda jornada también cerrará con una sesión práctica para afianzar los conceptos presentados en las ponencias.

Viernes, 6 de marzo | Geología en el laboratorio

La tercera y última jornada consistirá en una **visita-taller a diferentes laboratorios de la Facultad de Ciencia y Tecnología del Campus de Bizkaia**. En concreto, se visitará el laboratorio de bajas temperaturas **IzotzaLab (BC3)** y **dos de los laboratorios del departamento de Geología** de la EHU en Leioa (Bizkaia). Para más información, consulta el [programa completo](#) de esta edición.

Inscripción y acceso

La asistencia a las actividades organizadas será **libre y gratuita hasta completar el aforo**. Se recomienda inscripción previa en las conferencias del Bizkaia Aretoa - EHU para garantizar plaza. En el caso de la visita-taller del viernes, la inscripción es obligatoria debido al número limitado de participantes. La inscripción puede realizarse a través de la [web](#) del evento o del siguiente [formulario](#). Para más información contacta con la organización a través del siguiente correo electrónico: j.geologiamiopes@gmail.com.

--

GEOLOGÍA PARA POETAS, MIOPEs Y DESPISTADOS | Micro ↔ Macro

Fechas: 4, 5 y 6 de marzo



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica

Horario: Charlas geológicas. De 16:15 a 19:30 horas. Visita-taller a los laboratorios de Izotzalab (BC3) y Geología. De 16:00 a 19:15 horas.

Lugar:

Charlas geológicas: 4 y 5 de marzo en la sala Baroja, edificio [Bizkaia Aretoa-EHU](#). Avda. Abandoibarra, 3. Bilbao, Bizkaia.

Visita-taller a laboratorios: 6 de marzo. Punto de encuentro: [Plaza Mikel Laboa](#) del Campus de Bizkaia de la EHU en Leioa a las 16:00 horas. Barrio Sarriena s/n. 48940 Leioa, Bizkaia.